



eskoriatzako
udala

euskara zerbitzua

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA ESKORIATZAKO UDALEAN

6. plangintzaldia (2018-2022)

2018ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onartua



AURKIBIDEA:

0.- Sarrera.....	3. or.
I.- Eskoriatzako Udalaren derrigortasun indizea.....	4. or.
II.- Langile zerrenda eta hizkuntza egoera.....	6. or.
III.- Euskarazko atalak eta atal elebidunak	11. or.
IV.- Erabilera planean parte hartuko duten langileak	15. or.
V.- Plan estrategikoa 2018-2022	17. or.
VI.- Hizkuntza irizpideak	21. or.
VII.- Kontratazio irizpideak	33. or.



SARRERA

Euskararen Legeak garbi esaten du herritarrek euskara eta gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela eta administrazioek bermatu egin behar dietela eskubide hori. Eta hori da, hain zuzen ere, Legearen oinarriak funtsezkoena: hizkuntza eskubideak herritarrenak dira, eta Administrazioari dagokio eskubide horiek betetzeko neurriak hartzea eta betetzen direla bermatzea.

Testuinguru horretan, **86/97 Dekretuak**, EAEko herri-administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, ezartzen du herri-administrazioetan normalkuntza prozesua hezurmami dadin, entitate bakoitzak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatu beharko duela.

Dekretuak bost urteko plangintza alditan antolatzen du egiteko hori, eta zehazten du herri administrazio bakoitzak plangintzaldi bakoitzaren lehen urtean onartu beharko duela bere plana, edo lehendik onartuta izanez gero, horren egokitzapena.

Eskoriatzako Udalak 2001eko azaroan onartu zuen bere Euskararen Erabilera Plana; beraz, 2018an VI. Plangintzaldiari ekin zaionez, planaren egokitzapena onartzea dagokio Udalari urtea bukatu aurretik. Hori guztia kontuan hartuta egin du Euskara Zerbitzuak ondorengo orrietan jasotzen den Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana. Bertan bildu dira VI. Plangintzaldirako, hau da 2018-2022 urteetarako, Plan Estrategikoa eta proposatutako helburuak lortzeko ezinbestekoak diren hizkuntza irizpideak.



I.- ESKORIATZAKO UDALAREN DERRIGORTASUN INDIZEA



Erabilera Planaren ardatz nagusienetakoa arau legalek ezartzen duten **derrigortasun indizea** betetzea da.

Derrigortasun indizearen arabera erabakitzen da zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta **derrigorrezko hizkuntza eskakizuna eta** baita zeintzuk diren Udalak gutxienez bete beharreko helburuak ere, hau da, administrazio atal bakoitzaren izaera kontuan izanik, **zenbat izendatu behar diren atal elebidun** (euren eginkizunak euskaraz nahiz gaztelaniaz betetzen dituzten atalak) **eta** zenbat **euskarazko atal** (euren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituztenak).

Derrigortasun indize hori kalkulatzeko modua 86/97 Dekretuak berak ezartzen du bere 11. artikulua 2. puntuan, formula matematiko honen arabera: $\text{euskaldunak} + \text{ia euskaldunak} / 2$. Gainera, artikulua berean zehazten du eragiketa hori egiteko plangintzaldia hasten denean indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako datuak hartuko direla kontuan.

Horrela bada, **Eskoriatzako Udalaren kasuan**, 2016ko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistikako datu linguistiko ofizialen arabera (2018/04/13ko EHAA argitaratua), **%69,51koa da** udalari dagokion **derrigortasun indizea**:

2 urte eta gehiagoko biztanleak	Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
4.006	2.507	62,58	555	13,58	944	23,56
$\%62,58 + (\%13,58 / 2) = \%69,51$						



II.- LANGILEEN ZERRENDA eta HIZKUNTZA EGOERA



Aipatu bezala, Dekretuaren 11. artikuluari jarraiki, udalaren derrigortasun indizearen neurrikoa izan beharko du Udalaren derrigorrezko hizkuntza eskakizunen portzentajeak, eta horrenbestez, Eskoriatzako udal lanpostuetatik gutxienez %69,51k izan behar dute lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatzeke derrigortasun-data ezarrita. (Zerrenda osoa, 9-10 orrialdeetan.)

Derrigortasun indizearen betetze maila kalkulatzeko kontuan izan ditugunak:

- Eskoriatzako Udalaren 2018ko lanpostu zerrendan 30 lanpostu azaltzen badira ere, Erabilera Planerako 33 kontenplatuko ditugu, horiek baitira benetan Udalean lanean ari diren langileak.
- 86/97 Dekretuak bere 14. artikuluan ezartzen du lanpostuaren muina euskara bera denean, derrigortasun indizea osatu eta betetzerakoan lanpostu horiek ezingo direla inola ere kontenplatu. Hori kontuan izanda, Euskara zerbitzuko 3 lanpostuak kanpoan utzi ditugu neurketa honetarako.

Horrenbestez:

Eskoriatzako Udalaren derrigortasun indizea:	69,51	Lanpostu kopurua: 30
Derrigortasun indizearen betetze maila: (DD duen lanpostuen ehunekoa)	%93	30 lanpostutik 28
Derrigorrezko hizkuntza eskakizunen egiaztatze maila	%78,6	28 lanpostutik 22k

Eskoriatzako Udala derrigorrezko indizearen gainetik dabil bai derrigortasun daten ezarpenari dagokionez, bai hizkuntza eskakizunen egiaztatze mailari dagokionez.. Horrenbestez, hasi berri den plangintza-aldi honetarako **ez dugu aurreikusten HE eta derrigortasun daten aldaketa beharrik lanpostu zerrendan.**


Derrigorrezko hizkuntza eskakizunak egiaztatzeari dagokionez, sei dira derrigortasun-data ezarrita izan arren, lanpostuari dagokion HE egiaztatu ez duten langileak

- Idazkaria: Lanpostuari 4HE dagokio baina berak 3.HE dauka egiaztatuta. Zenbait urtetan hainbat saiakera egin arren ez du maila gaitzakerik lortu.
- Obra publikoetako ingeniari teknikoa: lanpostua betetzeko prozesuan, inork ez zuen egiaztatu 4HE, eta lanpostuari 3HE ezarri zitzaion (deialdi horretako lanpostua betetzeko bakarrik). Horrela bada, lanpostuaren jabe den langileak ez dauka 4HE egiaztatzeke derrigortasunik.



- Museoko ekonomia eta turismo kudeatzailea: Lanpostua betetzen duen langilea aldi baterako kontratatuta dago, eta bera lanean hasi zenean, 3.HE eskatu zitzaien. Plaza betetzea erabakiko balitz, 4HE egiaztatzea derrigorrezko baldintza izango litzateke.
- Zerbitzu ekonomikoetako erdi mailako teknikaria: Lanpostu honi 3HE esleitu zitzaien 2012an. Langileak 2HE dauka eta 3.HE egiaztatzetik salbuetsita dago adinagatik.
- Kultura eta kiroltako laguntzailea: Lanpostu hau 2014an sortu zen, eta subrogazio bidez bete zen. Lanpostuari 3HE dagokio baina langileak 2.HE dauka egiaztatuta. Hori egiaztatzetik salbuetsita dago adinagatik.
- Eginbehar anitzetako arduraduna: 2018an jubilatu da. Lanpostua hutsik dago momentuz.

Dena dela, Dena den, Eskoriatzako Udalaren hizkuntza egoeraren benetako argazkia ikusteko, udal langile guztien euskara ezagutza maila txertatu dugu ondoko grafikoan:



Datuak aztertuta, Eskoriatzako Udaleko langileen euskara ezagutza maila ona dela esan daiteke zalan-tza barik:

- 33 langiletik 23k 3HE edo 4HE egiaztatuta daukate
- 4 langilek 2HE egiaztatuta daukate
- 3 langilek 1HE egiaztatuta daukate eta beste 2k ezer ez, baina 1HE duten langile horietako bi euskaldun-zaharrak dira. Edonola ere, 5ak dira obra eta zerbitzuetako eskulangileak, hau da, ez dute idatzizko produkzio-rik eta ezta herritarrekiko zuzeneko harremanik ere.

ESKORIATZAKO LANPOSTU ZERRENDAA

2018ko urtarrila

IDAZKARITZA-KONTUHARTZAIETZA

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Idazkari-kontuhartzailea	OROK.	4	1994/12/31	FUNTZIONARIOA	3HE
Zerb.ekonomikoetako erdi maila.tek.	OROK.	3	2012/12/20	FUNTZIONARIOA	2HE
Kontuhartzailetzako erdi maila.tek.	OROK.	3	2012/12/20	FUNTZIONARIOA	4.HE
Administrari harreragilea	JENDAUR.	3	2001/02/22	FUNTZIONARIOA	3HE
Administrari zergabiltzailea	JENDAUR.	3	2002/01/10	FUNTZIONARIOA	3HE

HIRIGINTZA ZERBITZUA

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Hirigintzako teknikaria	OROK.	3	1995/07/30	FUNTZIONARIOA	3HE
Obra publikoetako udal ingeniari tek.	OROK.	4	2011/04/27	FUNTZIONARIOA	3HE
Hirigintza eta zerbitzuetako admin.	JENDAUR.	3	2002/01/10	FUNTZIONARIOA	3HE
Eginbehar anitzetako arduraduna	BEREZIA	2	2012/12/31	FUNTZIONARIOA	105
Eginbehar anitzetako A langilea	BEREZIA	1	—	FUNTZIONARIOA	0
Eginbehar anitzetako B langilea	BEREZIA	1	2011/05/25	FUNTZIONARIOA	1HE
A Peoi lurperatzailea	BEREZIA	1	2011/05/25	LABORAL FINKOA	1HE
B Peoi lurperatzailea	BEREZIA	1	2012/12/20	Bitarteko funtzionarioa	1HE
Udaletxeko garbitzailea	BEREZIA	1	—	Bitarteko funtzionarioa	0
Kirol instalazioetako A kontserjea	JENDAUR.	2	2002/01/10	FUNTZIONARIOA	2HE
Kirol instalazioetako B kontserjea	JENDAUR.	2	2001/02/22	FUNTZIONARIOA	2HE

UDALTZAINGOA

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
A Udaltzaina	GIZARTE	3	2004/05/10	FUNTZIONARIOA	4HE
B Udaltzaina	GIZARTE	3	2006/05/10	FUNTZIONARIOA	3HE

EUSKARA

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Euskara teknikaria	GIZARTE	4TG	—	FUNTZIONARIOA	4HE
Itzultzailea	OROK.	4TG	—	PRAKTIK. FUNTZIONAR.	4HE
Hizkuntza normalizatzailea *	OROK.	4TG	—	UDAL EUSKALTEG. FUNTZ.	4HE

* Lanpostu hau ez dago Lanpostu Zerrendan.

KULTURA ETA JAIK

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	IZEN-ABIZENAK	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Kultura teknikaria	GIZARTE	3	2002/01/10	Unzueta Iturriaga, Arantxa	FUNTZIONARIOA	3HE
Kultura eta kiroltako laguntzailea	GIZARTE	3	2014-10-28	Lekuona Pagaldai, Luis M.	LABORAL FINKOA	2HE
Bibliotekari arduraduna	JENDAUR.	3	2002/01/10	Agiriano Jauregi, Iñaki	FUNTZIONARIOA	4HE
Bibliotekari laguntzailea	JENDAUR.	3	2004/10/05	Loiti Loiti, Oscar	FUNTZIONARIOA	4HE

GIZARTE ZERBITZUAK

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	IZEN-ABIZENAK	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Gizarte langilea	GIZARTE	3	1993/12/31	Altube Oianguren, Agurtzane Beltran-Heredia Prz-Mendig. Myriam	FUNTZIONARIOA	4HE
Drogamenpekotasunen preb. tekn.	GIZARTE	3	2002/01/10	Myriam	LABORAL FINKOA	3HE
Gizarte langilea *	GIZARTE	3	derrigor azter.egunean	Solaguren Martin, Beronika	Aldi baterako laborala	3HE

* Lanpostu hau ez dago Lanpostu Zerrendan.

GAZTERIA ZERBITZUA

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	IZEN-ABIZENAK	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Gazteria teknikaria	GIZARTE	4	2012/12/20	Etxaniz Belategi, Maider	Aldi baterako laborala	4HE

MUSEOA ETA TURISMOA

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	IZEN-ABIZENAK	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Museoko ekon.eta admin.kude./turismo kud.	JENDAUR.	4	2012/12/20	Arana Mugika, Nerea	Aldi baterako laborala	3HE
Museoko teknikaria	JENDAUR.	4	2012/12/20	Altzua Galparsoro, Saioa	Aldi baterako laborala	4HE

BESTE BATZUK

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	IZEN-ABIZENAK	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
Adm.partekatua (kul.,eusk., giz., harr.)	JENDAUR.	3	2015/02/24	Elorza Azkoitia, Aintzane	Aldi baterako laborala	EGA

INFORMATIKA ZERBITZUA

LANPOSTUA	IZAERA	HE	DERRIG .DATA	IZEN-ABIZENAK	LAN HARREMANA	EUS.MAILA
IKT teknikaria*	OROK.	3	derrigor azter.egunean	Galdos, Mendia, Ekhi	Aldi baterako laborala	EGA

* Lanpostu hau ez dago Lanpostu Zerrendan.



III.- EUSKARAZKO ATALAK ETA ATAL ELEBIDUNAK



Dekretuaren 17.artikuluari jarraiki, derrigortasun indizeak zehaztuko du zeintzuk diren Udalak **gutxienez** bete beharreko helburuak, hau da, atal bakoitzaren izaera kontuan izanik, **zenbat** izendatu behar diren **atal elebidun** (euren eginkizunak euskaraz nahiz gaztelaniaz betetzen dituztenak) **eta zenbat euskarazko atal** (eginkizunak batez ere euskaraz betetzen dituztenak).

Eskoriatzako Udalaren derrigortasun indizea %69,51koa denez, jendaurreko, gizarte izaerako eta izaera orokorreko atal guztiek elebidunak izan beharko lukete, eta ondorioz, euren zereginak bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan bete beharko lituzkete (Dekretuaren arabera, hori da %45etik %70era bitarteko indizea duten erakundeei dagokien helburua).

Hori hobeto ulertzeko, lehendabizi udaleko atalak eta lanpostuak izaeraren arabera sailkatuko ditugu:

A JENDAURREKOAK	IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZA:	- Administrari harreragilea - Administrari zergabiltzailea
	HIRIGINTZA:	- Hirigintza eta zerbitz.administraria - Kirol instalazioetako A kontserjea - Kirol instalazioetako B kontserjea
	KULTURA ETA JAIK:	- Bibliotekari arduraduna - Bibliotekari laguntzailea
	MUSEOA ETA TURISMOA:	- Museoko teknikaria - Museoko ekonomia eta administrazio kudeatzailea / turismo kudeatzailea
	BESTE BATZUK	Administrari partekatua (gizarte-kultura-euskara-harrera)
B GIZARTE IZAERAKOAK	UDALTZAINGOA:	Udaltzainak (2)
	KULTURA:	- Kultura teknikaria - Kultura eta kirol etako laguntzailea
	EUSKARA:	Euskara teknikaria
	GIZARTE ZERBITZUAK:	- Gizarte langileak (2) - Drogamenpekotasunen prebentzio tek.
	GAZTERIA:	Gazteria teknikaria
C IZAERA OROKORREKOAK	IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZA:	- Idazkari-kontuhartzailea - Zerb.ekonom.erdi mailako teknik. - Kontuhartzailetzako erdi maila.tekn.
	HIRIGINTZA:	- Hirigintzako teknikaria - Obra publikoetako udal ingeniari tekn.
	EUSKARA:	- Itzultzailea - Hizkuntza normalizatzailea
	INFORMATIKA ZERBITZUA	IKT teknikaria
D BEREZIAK	HIRIGINTZA:	- Eginbehar anitzetako arduraduna - Obra eta zerbitzuetako eskulangileak (4) - Udaletxeko garbitzailea



Dekretuari jarraituz,

- A, B, eta C izaerako atalek elebidunak izan behar dute
- atal bat elebidun izendatzeko baldintza hauek bete behar dira: lanpostuen % 80 inguruk izatea derrigortasun-data jarrita eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta, eta atalburuak gutxienez 3.HE egiaztatuta izatea.

Eskoriatzako Udalean atal guztiek betetzen dituzte elebidun izateko beharrezko baldintzak (zehaztasunak hurrengo orrian). Atal horietan guztietan euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain lan hizkuntza ere bada atalaren zeregin askotan.

Dekretuak esaten duenari jarraituz, **euskarazko atalak** izendatzea, berez, %70etik %100era bitarteko indizea duten erakundeen betebeharra litzateke, eta Eskoriatzako Udala oso gutxigatik ez dago tarte horretan. Azpimarratu beharra dago, baina, Eskoriatzako Erabilera Plana indarrean dagoela 2001az geroztik, eta zenbait atalen ohiko jarduna ia erabat euskaraz gauzatzen dela gaur egun.

Hori kontuan izanda, eta bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta, honela sailkatuko ditugu Eskoriatzako atalak plangintzaldi honetarako:

ADMINISTRAZIO ATALA	SAILKAPENA
Kultura eta jaiak	Euskarazko atala
Museoa eta turismoa	Euskarazko atala
Gazteria zerbitzua	Euskarazko atala
Udaltzaingoa	Euskarazko atala
Gizarte zerbitzuak	Euskarazko atala
Informatika zerbitzua	Euskarazko atala
Euskara	Euskarazko atala
Idazkaritza-kontuhartzailtza	Atal elebiduna
Hirigintza zerbitzua	Atal elebiduna



ATAL ELEBIDUNAK eta EUSKARAZKOAK

Oharrak:

- Taula honetan, lanpostu guztiak hartu dira kontuan, zerrendakoak eta hortik kanpokoak; eta DD. kopurua zehazterakoan, kontuan izan da aldi baterako
- laboralak kontratatzerakoan euskara derrigorrez eskatu zitzaien ala ez.

ATALAREN IZENA	lanp.kop	DD.kop.	Egiaztatutako HE kop.	Atalburuak gutxienez 3.HE	Atalaren euskara maila	HIZKUNTZA HELBURURA
Idazkaritza-kontuhartzailletza	5	5 (%100)	(3) %60	bai	4.HE: 1; 3.HE: 3; 2.HE: 1	ATAL ELEBIDUNA HE egiaztatuta duten langileen kopurua ez da %80ra iristen; dena dela, atal elebidun gisa funtzionatzen dute, duten ezagutza baliatuta, bakoitzak bere neurrian, baina ataleko langile guztiek erabiltzen baitute euskara lan hizkuntza gisa.
Hirigintza zerbitzua	11	9 (%82)	(7) %78	bai	3.HE: 3; 2.HE: 2; 1.HE: 3; 0.HE: 3	ATAL ELEBIDUNA Hizkuntza tipologia eta lanpostu izaera oso desberdinak batzen dira atal honetan. Atal elebidun gisa funtzionatzen du, baina neurriak bideratuko dira ataleko langileek funtzio komunikatibo gehiago egin ditzaten euskaraz.
Udaltzaingoa	2	2 (%100)	%100	—	4.HE: 1; 3.HE: 1	EUSKARAZKO ATALA Atalaren ohiko jarduna ia erabat euskaraz gauzatzen da.
Kultura eta jaiak	4	3 (%75)	%100	bai	4.HE: 2; 3.HE: 1; 2.HE: 1	EUSKARAZKO ATALA Atalaren ohiko jarduna ia erabat euskaraz gauzatzen da.
Gizarte zerbitzuak*	4	4 (%100)	%100	bai	4.HE: 1; 3.HE: 3	EUSKARAZKO ATALA Atalaren ohiko jarduna ia erabat euskaraz gauzatzen da.
Gazteria zerbitzua	1	1 (%100)	%100	—	4.HE: 1	EUSKARAZKO ATALA Atalaren ohiko jarduna ia erabat euskaraz gauzatzen da.
Museoa eta turismoa	2	2 (%100)	%50	—	4.HE: 1; 3.HE: 1	EUSKARAZKO ATALA Atalaren ohiko jarduna ia erabat euskaraz gauzatzen da.
Euskara zerbitzua	3	0	%100	bai	4.HE: 3	EUSKARAZKO ATALA
Informatika zerbitzua	1	1	%100	—	3.HE: 1	EUSKARAZKO ATALA Atalaren ohiko jarduna ia erabat euskaraz gauzatzen da.

*Kultura, gizarte, euskara eta harrera zerbitzuetako administrari partekatua hemen sartu dut



IV.- ERABILERA PLANEAN PARTE HARTUKO DUTEN LANGILEAK

Erabilera Planean ze langilek parte hartu beharko luketen erabakitzeko (Euskara zerbitzuko langileak kanpo), ondorengo irizpideak izan ditugu kontuan:

- Derrigortasun-data ezarria izanik, dagokion HE egiaztatuta izatea (zerbitzuetako eskulangileak izan ezik) . Guztira, 17 langile.
- Lanpostu zerrenda ofizialean agertu ez arren, dagokion HE egiaztatuta izatea. Guztira, 2 langile (aldi baterako kontratatuta dagoen gizarte langilea eta IKT teknikaria).
- HE egiaztatu gabe izan arren, balio estrategikoduntzat jotzen den lanpostu baten aritzea, baldin eta egokitutako HE baino bat baxuagoa egiaztatuta izanez gero. Guztira 5 langile: idazkaria, obra publikoetako ingeniari teknikoa, zerbitzu ekonomikoetako erdi mailako teknikaria, museoko ekonomia eta turismo kudeatzailea, eta kultura eta kiroltako laguntzailea.

Irizpide horien bidez lortu nahi da derrigortasun-datak eta hizkuntza eskakizunak benetako bitarteko izatea euskara erabilerarekin lotzeko, eta ez ezagutzarekin soilik.

Horrela bada, Eskoriatzako Erabilera Planean guztira 24 langilek hartuko dute parte Plangintzaldi honetan. Hona hemen atalkako sailkapena:

ADMINISTRAZIO ATALA	PLANEAN PARTE HARTUKO DUTEN LANGILEAK		
	Lanp. zerrendakoak	Zerrendatik kanpok.	Guztira/guztiekiko
Idazkaritza-kontuhartzaitza	5	--	5/5
Kultura	4	--	4/4
Gizarte zerbitzuak	3	1	4/4
Gazteria zerbitzua	1	--	1/1
Museoa, ingurumena eta turismoa	2	--	2/2
Informatika zerbitzua	0	1	1/1
Udaltzaingoa	2	--	2/2
Hirigintza			
- Bulegoetako langileak	3	--	3/3
- Kiroldegiko kontserjeak	2	--	2/2
- Eskulangileak	6	--	0/6

Guztira: **24/30**

Planean sartuko diren 24 langile horiek euskara lan-hizkuntza bezala erabiliko dute, eta maila batean edo bestean, baina denek egin beharko dituzte funtzio komunikatibo batzuk euskaraz

IV.- PLAN ESTRATEGIKOA

2018-2022

Planaren izena	ESKORIATZAKO ERABILERA PLANA (2018/2022)									
Hasiera urtea:	2018	Amaiera urtea:	2022							
		Hizkuntza Eskakizunen Egiatzatze-mai	73							
Derrigortasun-indizearen betetze maila:	93	Plan Estrategikoaren onarpen data:								
			HASIERAN				AURREIKUSITAKOA			
ARDATZAK, ELEMENTUAK ETA ADIERAZLEAK			EUSK	ELEB	%	BAI/EZ	EUSK	ELEB	%	BAI/EZ
ZERBITZU-HIZKUNTZA			Helburua: Euskararen presentzia eta erabilera indartzea herritarrekiko ahozko eta idatzizko harremanetan, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.							
ERAKUNDEAREN IRUDIA			Helburua: Jendaurreko guneetan jarrera proaktiboa erakustea herritarrei euskara erabiltzera gonbidatzeko (Txantxangorria eta bestelako identifikagarriak erabilia...).							
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak			Helburua: Jendaurreko errotulazioa eta ikus-entzunezkoak euskaraz ere egotea.							
Errotulazioa eta ikus-entzunezkoak			54	46			54	46		
Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak			Helburua: Marketinean, publizitatean eta jendaurreko ekitaldi guztietan euskararen presentzia eta erabilera, era batera edo bestera, bermatzea.							
Argitalpenak, iragarkiak, publizitate-kanpainak, prentsa-oharrak eta paper-gauzak			50	38			50	38		
Jendaurreko ekitaldiak			70	30			70	30		
Herritarrari begira antolatutako ikastaro eta jarduerak			60	13			60	13		
Ingurune digitala			Helburua: Webgunean eta sare sozialetan edukiak euskaraz ere egotea.							
Webgune eta sare sozialen edukia			50	50			50	50		
HERRITARREKIKO HARREMANAK			Helburua: Zerbitzuetan euskararen erabilera indartzea euskaraz egiteko hautua egin duen herritarra euskaraz artatua izan dadin.							
Herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan.			Helburua: Herritarrekiko harremanetarako idazkiak euskaraz ere egotea.							
Idatzizko harremanak			30	70			30	70		
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak			96	1			99	1		
Herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua emateko orduan.			Helburua: Herritarrekiko harremanetan ahozko arreta euskaraz ere egitea							
Telefonoz, on line eta aurrez aurre burututako ahozko harremanak			90	0			100	0		
Euskarazko eskaerei euskaraz emandako erantzunak			90	0			100	0		

LAN-HIZKUNTZA	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea lan harremanetan.							
BARNE HARREMANAK	Helburua: Komunikazioan eta lan-tresnetan euskara ereohikotasunez erabiltzea.							
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	Helburua: Bulegoko materialak, paper gauzak, kafe-makinak etab. euskaraz egotea.							
Lanari lotutako hizkuntza-paisaia	66	0			70	0		
Barne harremanak idatziz	Helburua: Idatzizko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.							
Informaziorako edota komunikaziorako tresnak	95	5			95	5		
Lan-bileretako idatziak	57	40			70	27		
Erakundearen barne harremanetarako idatziak	77	20			77	20		
Barne harremanak ahoz	Helburua: Ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotzea.							
Erakundearen barruko lan-bileretako ahozkoak	83				83			
Erakundearen barruko telefonozko eta aurrez aurreko harremanak	72				80			
Baliabide informatikoak	Helburua: Euskarri informatikoen euskarazko bertsioa ere egotea eta horiek erabiltzen direla sustatzea							
Euskarazko bertsioen instalazio-kopurua	86	0			95	0		
Euskarazko bertsioen erabilera	71	0			75	0		
PERTSONEN KUDEAKETA	Helburua: Pertsonen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera indartzea.							
Pertsonen kudeaketa	Helburua: Euskararen ahozko eta idatzizko erabilera areagotzea giza baliabideen kudeaketan.							
Pertsonen kudeaketa	50	40			50	50		
Laneko prestakuntza	Helburua: Euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotzea eta eskaera sustatzea.							
Laneko prestakuntza	42	0			50	0		
Ikastaroen kudeaketa	0	100			0	100		

KANPO HARREMANAK	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea kanpoko erakundeekiko harremanetan.							
Administrazioa	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea herri administrazioekiko harremanetan.							
Administrazioekiko idatzizko harremanak	73	26			75	25		
Administrazioekiko ahozko harremanak	84				90			
Erakunde pribatuak: finantza-entitateak, produktu- eta zerbitzu-hornitzaileak, etab.	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea hornitzaileekiko harremanetan.							
Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak	45	52			45	55		
Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak	62				70			
Bestelako harremanak: aliatuak, erakunde kolaboratzaileak, etab.	Helburua: Euskararen erabilera areagotzea gainerako harremanetan.							
Beste entitateekiko idatzizko harremanak	45	52			45	55		
Beste entitateekiko ahozko harremanak	60				70			
KUDEAKETA SISTEMA	Helburua: Euskararen kudeaketa aurreratua bermatzea.							
ESTRATEGIA: Hizkuntzen kudeaketa kudeaketa-sistema orokorrean integratzea	Helburua: Euskararen kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea.							
Kudeaketa planaren jarraipena zuzendaritza batzordeak egitea (0-%100)			100				100	
Erakundearen kudeaketan euskararen kudeaketak duen txertatze-maila (0-100%)			85				85	
Euskara sortze hizkuntza (0-100%)			65				70	
Dokumentuen estandarizazioa (0-100%)			80				95	
HERRITARRAK eta ZERBITZUA: Hizkuntzen kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan integratzea	Helburua: Erakundeko zerbitzuen prozesuetan hizkuntza txertatzea.							
HOElen betetze maila (0-100%)			87				90	
PERTSONAK: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea	Helburua: Hizkuntzen kudeaketa langileen kudeaketan integratzea.							
Guztira egiaztatutako langileen hizkuntza eskakizunak			73				80	
Erakunde ordezkarien hizkuntza gaitasuna			91				91	
Langileen- balorazio positiboaren portentajea erabilera planarekiko			90				95	
Langile eta erakunde ordezkarien parte hartze aktiboa erabilera planeko ekimenetan			75				90	



IV.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK



EDUKIA:

I. Kapituluak: HIZKUNTZEN ERABILERARAKO JARRAIBIDE OROKORRAK

1. artik..- Eragin eremua
2. artik..- Zerbitzu-hizkuntza, harreman-hizkuntza, lan-hizkuntza
3. artik..- Itzulpen irizpideak
4. artik..- Kalitatezko komunikazioak
5. artik..- Komunikazioa elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak
6. artik..- Ahozko komunikazioak
7. artik..- Idaztizko komunikazioak
8. artik..- Komunikazioa telematikoa

II. Kapituluak: BESTE ESPARRU BATZUETARAKO JARRAIBIDEAK

9. artik..- Hizkuntza paisaia eta irudi korporatiboa
 - Papeleria
 - Barne errotulazioa
 - Kanpo errotulazioa
 - Argitalpenak, iragarpenak eta publizitatea
 - Kartelak
 - Eskoriatzako agenda- panelak eta kultur gida
 - Webguneak
 - Jendaurreko ekitaldiak
10. artik..- Langileen prestakuntza orokorra
11. artik..- Udal langileak euskara ikastaroetara joateko malgutasuna eta erraztasunak
12. artik..- Erregistroa
13. artik..- Diru laguntzak
14. artik..- Udal baimenak
15. artik..- Tresna eta aplikazio informatikoak

III. Kapituluak: LANGILE ETA FUNTZIONARIOEN HAUTAKETA PROZESUETARAKO JARRAIBIDEAK

- Lehenengoa: Langileak kontratatzerakoan HE jartzeko jarraitu beharreko prozedura
- Bigarrena: Derrigortasun datak zehazteko irizpidea



I. Kapitula

HIZKUNTZEN ERABILERARAKO JARRAIBIDE OROKORRAK

1. artikulua.- Eragin eremua

Eskoriatzako Udaleko administrazio atal guztiek bete behar dituzte jarraibide hauek.

2. artikulua.- Zerbitzu-hizkuntza, harreman-hizkuntza, lan-hizkuntza

Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza dira herritarrekin, harremanetako hizkuntza beste administrazio batzuekin, eta lan-hizkuntza Eskoriatzako Udalean bertan.

Hori betetze aldera, euskara derrigorrezkoa duten lanpostuetan aritzen diren langileak hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan ala ez, beti ere lan beharkizunen arabera. Horretarako, erakundearen laguntza izango dute, beharrezkoa den guztietan.

3. artikulua.- Itzulpen irizpideak

Langileen hizkuntza gaitasuna baliatu eta itzulpenen kopurua ahalik eta gehien murrizteko helburuarekin, honako neurriak hartuko dira:

- Irizpide orokor moduan, udal barruko dokumentazioa (ebazpenak, bilera-deiak, aktak, memoriak, txostenak, proposamenak, aurrekontuak, ...) hizkuntza bakarrean sortuko da, euskaraz edo gaztelera, eta ezinbestekoa denean bakarrik egingo da idatziaren itzulpena.
- Aktak: Osoko Bilkurako aktak ele bitan egingo dira, eta itzultzaileak sortze hizkuntzatik xede hizkuntzara itzuliko du. Batzorde informatzaileetako aktak, berriz, euskaraz sortuko dira.
- Dokumentuen estandarizazioa bultzatuko da: langileen eskura jarriko dira, txantiloia gisa, eta ez da itzultza bidaliko dagoeneko txantiloia sortua duen idatzirik.
- Testu berdina (edo oso antzerakoa) ez da bi aldiz itzultza bidaliko, nahiz eta prozesuan zehar testuak aldaketak izan.

Nolanahi ere, kasua edozein delarik ere, zuzenketa zerbitzua eskainiko da beti.

4. artikulua.- Kalitatezko komunikazioak

Kalitatezko komunikazio idatzia sustatu nahi da Udalean; hau da, testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak. Hona hemen kalitatezko testuak idazteko irizpideak:

- Helburua komunikatzea da: hartzaileak lehen entzunaldi edo irakurraldian ulertu behar du esaten zaiona. Testuak egokia izan behar du komunikazioaren ikuspegitik.
- Testuak egitura logikoa izango du, eta egitura hori agerian geratuko da era honetako estrategiak baliatuta: izenburuak eta azpi-izenburuak, ideiak paragrafok, lege-aipamenak oin-ohar modura...
- Testuak zuzena izan behar du.
- Hizkuntza bakoitzak badu bere esateko era: errespetatu. Nolanahi ere, administrazioa hizkera berri, modernizatu eta herritarrengana hurbildu beharra dago.
- Idazkiaren diseinua zaindu, irakurgarritasuna bermatzeko.




5. artikulua.- Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak


Ahal den guztietan testua **euskara hutsean** idatziko da, eta **ez** da **sinatuko** **erdara hutsean** idatzitako kanporako idatzirik.

Edonola ere, ele bitan idatziz gero, **euskarari** emango zaio beti **lehentasuna**:


- (a) **Euskaraz** idatzitakoa izango da orriaren **aurreko aldea** eta gaztelaniazkoa atzekoa. Zigilua eta sinadura euskaraz idatzita dagoen aldean bakarrik jarriko dira.



- (b) Euskaraz idatzitako testua eta gaztelaniazkoa orrialde berean jarri behar izanez gero, ahal den guztietan idatzi **euskarazkoa goian eta erdarazkoa azpian eta txikiago**. (Gomendioa: 2 punturen aldea letra tamainan). Data, zigilu eta sinadura bakarra jarri orriaren bukaeran, euskaraz.



- (c) Bi testuak orri berean eta zutabetan idatzi behar badira, jarri beti **euskarazkoa ezkerretara** eta gaztelaniazkoa eskuman. Zigilu, data eta sinadura bakarra, euskaraz.



- (d) **Liburuxka** moduan, bi testuak orri banatan idatzi behar badira, utzi **eskumako orria euskarazko** testuarentzat.





6. artikulua.- Ahozko komunikazioak

Ahozko harreman-mota guztietan (telefonoz, harrera-lekuetan...), **euskaraz egingo dute lehen hitza** udal langileek, eta gero, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko dute. Beti errespetatuko dute solaskidearen hizkuntza-aukera, hari inolako deserosotasunik eragin gabe.

Hala egingo da bai herritarrari zerbitzua ematen zaionean eta bai administrazio arteko harremanetan.

Halaber, hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak (entzungailu automatikoz, telefono bidez edota bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

Udal barruko harremanetan, euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izateko bideak urratuko dira. Horrela, langileen arteko zein langile eta zinegotzien arteko ahozko harremanak, eta eguneroko zereginiek dakartzaten ahozko jardunak (lan-bilerak, batzordeak, ...) euskaraz egingo dira, partaide guztiek ulertzen dutela bermatuta dagoen guztietan.

7. artikulua.- Idatzizko komunikazioak

Herritarrei orokorrean, izenik gabe, zuzendutako dokumentazioa (bandoak, jakinarazpenak, baldintza pleguak, iragarki taulako informazioa...) ele bitan idatziko da; baina, arau hauen 5. artikuluan adierazitakoari jarraituz, euskarazko testuari lehentasuna emanaz.

Herritarrei komunikazio pertsonalizatuak bidali behar zaizkienean, Udalak duen Hizkuntza Errolda kontsultatuko da, eta hor jasotako hizkuntza hautuaren arabera, euskara hutsean edo ele bietan idatziko dira. Errolda horretan hizkuntza daturik aurkitu ezean:

- eskaera euskaraz idatzi duenari euskara hutsean erantzungo zaio, eta gaztelaniaz egin duenari, ele bietan
- eskaera baten erantzuna ez bada, ele bietan.

Beste administrazioekiko harremanetan, euskara hutsezko idatziak egitera joko da hartzailea EAEko administrazio publikoa denean, eta berdin jokatu da EAEn kokatutako estatuko administrazio orokorarekin ere (Justizia, Posta ...). EAEtik kanpoko administrazioetarako, idatzi elebidunak egingo dira.

Gainera, EAEko beste administrazioek Eskoriatzako Udalari gaztelaniazko idatzirik bidaliz gero, Eskoriatzako Udalak administrazio horri eskatuko dio euskaraz ere bidal ditzala idatziok.

Udal barruko dokumentazioa (ebazpenak, bilera-deiak, aktak, memoriak, txostenak, proposamenak, aurrekontuak, ...) hizkuntza bakarrean sortuko da, euskaraz edo gazteleraz, eta ezinbestekoa denean bakarrik egingo da idatziaren itzulpena.

Irizpide orokor moduan, 3.HE edo hortik gorako maila duten langileek euskaraz bakarrik sortuko dituzte euren idatziak, beti ere dokumentuaren zailtasuna kontuan izanda.

8. artikulua.- Komunikazio telematikoa

Tramitazio telematikoan, hizkuntza irizpide hauei jarraituko zaie:

- Herritarrak aukera izango du tramitazioa zein hizkuntzatan nahi duen erabakitzeko.
- Udalak tramitazioarako erabilitako hizkuntzaren arabera erantzungo du: euskaraz tramitatutako eskaerei euskaraz erantzungo die, eta gazteleraz tramitatutakoei, ele bietan.



II. Kapitulua

BESTE JARDUERA ESPARRU BATZUETARAKO JARRAIBIDEAK

9. artikulua.- Hizkuntza paisaia eta irudi korporatiboa

Papeleria

Papeleria osatzen duten dokumentu-ereduak euskara hutsean egongo dira.

Barne-errotulazioa

Eskoriatzako udal egoitzetako barru aldeko inskripzio eta errotuluak euskara hutsean egongo dira jarri beharreko hitzek euskaraz eta gaztelaniaz antzeko grafia duten guztietan.

Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean, testu elebidunak erabiliko dira, beti ere euskarari lehentasuna emanda.

Kanpo-errotulazioa

Udal egoitzetako kanpoko aldean eta gainerako udal ondasunetan (ibilgailuak, zaborrontziak, seinaleak, ...) jarriko diren inskripzioak ere euskara hutsean egongo dira euskarazko eta gaztelaniazko grafia antzerakoa den kasu guztietan.

Komunikazioa bermatzeko beharrezkoa dela ikusten denean, mezua euskaraz eta piktogramaz jarriko da (biak batera), eta piktogramarik ez dagoenean bakarrik jarriko dira ele bitan, beti ere euskarari lehentasuna emanda.

Argitalpenak, iragarpenak eta publizitatea

Eskoriatzako Udalaren **argitalpenak** (egitarauak, gidak, esku-orriak, liburuak, aldizkariak, ...) euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan plazaratuko dira, eta ele bitan argitaratuz gero, euskarari emango zaio beti lehentasuna.

Bi hizkuntza ofizialetan egingo dira **iragarpen** ofizialak **eta** gainerako **publizitate-ekintzak**; hala ere, hartzailearen ezaugarriak kontuan izanda, euskaraz ere egin ahal izango dira.

Iragarpenok euskara hutsez argitaratuko dira euskarazko hedabideetan eta ele bitan gaztelaniazkoetan.

Kartelak:

Irizpide orokor moduan, ume eta gazteentzako kartelak euskara hutsean aterako dira, eta baita euskaraz diren ekintzen kartelak ere.

Gazteleraz diren ekintzen karteletan:

- **Izenburua:** gazteleraz idatziko da.
- **Xehetasunak:** ele bietan jarriko dira, betiere euskarari lehentasuna emanda.

Eskoriatzako agenda-panelak eta kultur gida

Komunikazio hizkuntza nagusia euskara izango da. Hala ere, iragarritako jarduerak gazteleraz direnean, horien izenburua gazteleraz mantenduko da, eta jarduerari buruzko bestelako xehetasunak ere gazteleraz jarriko dira.



Xehetasun horietan, lekua, adina, ordua, iraupena eta antzerakoak euskaraz bakarrik idatziko dira, erabilera errazekoak eta ulermen maila zabalekoak direla iritzirik.

Hizkuntza gabeko jardueretan irizpidea zehaztea zaila da, baina irizpide orokor gisa mantenduko da informazioa gazteleraz bakarrik ez ematea.

Webguneak

- Webgune instituzionala: Eskoriatzako Udaleko webguneak euskarazko zein gaztelaniazko atalak izango ditu, biak ere eduki berarekin.
Webgunean eduki berriak jartzeko garaian, aldi berean jarriko dira euskarazko zein gaztelaniazko bertsioak.
- Eskoriatzakoagenda.eus webgunea: webgune honek duen egitura kontuan izanik, honako irizpide hauek beteko dira:
 - o Komunikazio hizkuntza nagusia euskara izango da.
 - o Hala ere, iragarritako jarduerak gazteleraz direnean, horien izenburua gazteleraz mantenduko da, eta jarduerari buruzko bestelako xehetasunak ere gazteleraz jarriko dira.
 - o Xehetasun horietan, lekua, adina, ordua, iraupena eta antzerakoak euskaraz bakarrik idatziko dira, erabilera errazekoak eta ulermen maila zabalekoak direla iritzirik.
 - o Hizkuntza gabeko jardueretan irizpidea zehaztea zaila da, baina irizpide orokor gisa mantenduko da informazioa gazteleraz bakarrik ez ematea.

Jendaurreko ekitaldiak

Eskoriatzako Udalaren ordezkaritzan egiten dituzten ekitaldi publikoetan (prentsurrekoak, mahai-inguruak, jaietako pregoia, herri-telebistako agerraldietan, ...), langile nahiz zinegotziak euskaraz arituko dira, edo euskarari lehentasuna emanez. Horregatik, hain zuzen ere, ekitaldian parte hartuko duen kargua edo langilea elebiduna izan dadin zaindu beharko da.

10. artikulua.- Langileen prestakuntza orokorra

Prestakuntza arloan, ahalegina egingo da euskarazko ikastaroen eskaintza handitu eta gero eta ikastaro gehiago eman daitezen euskaraz.

Beti ere euskarazko ikastaroak kalitate onekoak izatea zainduko da, bai edukiari bai hizkuntzari dagokionean.

Ikastaroan parte hartuko duten langileen hizkuntza mailaren arabera erabakiko da zein ikastaro eskaini euskaraz eta zein ez.

11. artikulua.- Udal langileak euskara ikastaroetara joateko malgutasuna eta erraztasunak

Udal langile finkoei dagokienez, udalak gaur egun duen plantilla kontuan hartuta, bukatutzat ematen da langileak euskalduntzeko prestakuntza fasea. Horrenbestez, langileei ez zaie eskainiko euskara ikastaroetara lanorduetan joateko aukerarik.

Kontratazio berriak eginez gero ere, ez da horren beharrik aurreikusten, udalak lanpostu berrietarako dituen hizkuntza irizpideei jarraituz, lanpostuari dagokion HE egiaztatuta duten langileak hartuko baitira.

Finkoak ez diren langileen kasuan, euskara ikastaroetara joateko erraztasunak emango zaizkie; esate baterako:

- Ikastaroaren ordutegia eta lan ordutegia bat etorri gero, langileari malgutasuna emango zaio lan ordutegian ikastarora joateko eta ordu horiek beste ordu baten berreskuratzeko.



- Udal langileak eskoriatzarrak izan ez arren, eskoriatzarrei euskara ikasteko eman ohi zaien diru laguntza bera emango zaie.

Euskara ikastarora joateko baimena nahi duen langileak Pertsonal batzordera bideratu beharko du eskaria. Lanorduetan malgutasuna aplikatzea onartuz gero, baimenean bertan langile horri eskatuko zaizkion erabilera konpromisoak ere zehaztuko dira, langilearen hizkuntza maila eta lan eginkizunaren arabera.

12. artikulua.- Erregistroa

Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan alor bat egongo da sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzatan dagoen adierazteko.

Eskoriatzako Udaleko erregistro administratiboan dokumentuen inskribapena euskaraz egingo da.

13. artikulua.- Diru-laguntzak

Deialdi bidezko diru-laguntzak: Diruz lagundutako jarduerari buruzko informazioa emateko egingo den publizitate edo propagandan (ahozkoan zein idatzizkoan), euskara erabiltzera joko da, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliz gero, lehentasuna euskarari emango zaio.

Hitzarmen bidezko diru-laguntzetan, normalizazio neurriak hartzeko konpromisoa eskatuko zaie elkarteei, bai informazioa idatziz ematerakoan (kartelak, oharrak...) bai ahozkoan (jardueretan eta ekintza publikoetan). Horrez gain, diruz lagundutako jardueretan erabilitako hizkuntzari buruzko datuak eskatu ahal izango zaizkie.

Edonola ere, kasuan kasuko diru laguntza deialdi edota hitzarmenak aztertu egingo dira, hala badagokio, bakoitzari eskatu beharreko hizkuntza irizpideak gehitzeko.

14. artikulua.- Udal baimenak

Jaietan barrakak edo postuak jarri ahal izateko derrigorrezkoa izango da errotuluak euskaraz ere egotea. Gainera, jartzen den musikaren %80 euskal musika izan behar da.

Obra baimenak ematerakoan baldintza moduan eskatuko da ageriko elementuetan euskararen presentzia ziurtatzea: obra-seinale, errotulu edo oharrik jarri behar izanez gero, mezua euskaraz eta piktogramaz jarriko da; ele bietan jarriko dira bakarrik piktogramarik ez dagoenean, eta beti euskarari lehentasuna emanez.

Horren jarraipenaren ardura Udaltzaingoa izango da.

Udal lokalen lagapenak: euskararen normalizaziorako neurriak hartzeko konpromisoa eskatuko zaie elkarteei, bai jarduerari buruzko informazio idatzia ematerakoan (kartelak, oharrak...) bai ahozkoan (jarduera bera eta ekintza publikoak). Lagapen hitzarmenetan jasoko dira konpromiso horiek.

15. artikulua.- Tresna eta aplikazio informatikoak

Bi hizkuntza ofizialetan lan egiteko prestaturik egongo dira programa informatiko orokorrak eta baita berariaz sortutako programa edo tresna informatikoak ere.

Bertsioa elebiduna bada, euskarazko moldaera txukuna eta erabilgarria izango dela bermatuko da: euskarazkoa ez da izango gaztelaniazkoaren egokitzapen hutsa.

Nolanahi ere, euskarazko bertsioaren erabilera hobetsiko da lanpostu guztietan.



III. Kapitulu

LANGILE ETA FUNTZIONARIOEN HAUTAKETA PROZESUETARAKO JARRAIBIDEAK

LEHENENGOA: Langileak kontratatzerakoan HE jartzeko jarraitu beharreko prozedura

Lege oinarria:

Uztailaren 6ko **Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak** honela dio bere 97.1, 97.2 eta 97.5 ataletan:

97. atala

1.- Euskara eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan.

2.- Gorago esandakoetarako, Administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitzak bere hizkuntz eskakizuna jarria izango du. Hizkuntza-eskakizunak zehaztuko ditu lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskarazko hizkuntz gaitasun-mailak. Hizkuntz eskakizuna aginduzko ez den artean, euskaraz jakiteari, bai lanpostuak betetzeko eta kanpoko aukeraketak egiteko, merezimendu gisa eman beharko zaion balioa zehazteko soilik izango da.

5.- Euskal Administrazio Publikoetan dauden lanpostuetako bakoitzari dagokion hizkuntz eskakizuna, baita hori aginduzko egiteko eguna ere, Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusiak txostena egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak horretarako zehaztuko dituen irizpideen arabera, bakoitzeko jaurtze-erakundeak jarriko ditu.

Lege horri jarraiki, apirilaren 15eko **86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarte** herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, honakoak jasotzen ditu:

23. atala

1.- Euskal herri-administrazioek dagokien txostena eskatuko diote Hizkuntza Politikarako Sailordetzari, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 97.5 atalari jarraituz. Beharrezkoa izango da, beraz, txosten hori izatea lanpostuetan derrigortasun-datak eta hizkuntz eskakizunak izendatzeko edozein erabaki hartu aurretik.

2.- Horretarako, herri-administrazio bakoitzak dagokion proposamena bidaliko dio Hizkuntza Politikarako Sailordetzari, honako dokumentazio honekin batera: ... /...

3.- Proposamena eta aurreko atalean jakinarazitako dokumentazioa jasota, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak txostena osatuko du horretaz hilabete baino lehen.

4.- Hizkuntza Politikarako Sailordetzak egindako txosten hori jaso ondoren, herri-administrazioaren gobernu-organoak hizkuntz eskakizunak eta, hala badagokio, derrigortasun-datak ezartzeko erabakia hartuko du. Era berean, horren arabera lanpostu-zerrendan egin beharreko aldaketak egitea onartuko du.



Xedapen gehigarriak

Bosgarrena.- Aldibaterako lanak egiteko lan-kontratuko langileak hartzeko egiten diren deialdietan euskara ezagutzea eskatzea edo baloratzeko ondoren azaltzen den moduan egingo da:

1.- Deialdiaren barruan euskararen ezagutza eskatzeko edo baloratzeko asmoa duen administrazioak lanpostuari zein hizkuntz eskakizun eta hala dagokionean, zein derrigortasun-data ezarri proposatzen duen azaldu beharko dio Hizkuntza Politikarako Sailordetzari. Horrekin batera ondoren aipatzen direnak jasoko dituen txostena ere bidali beharko du:

- a) kontratatuko den langilearen bete beharrekoen izaera.*
- b) hartuko den langilea administrazioaren organigramaren barruan non kokatzen den eta harremanetan jarriko den atalen ezaugarriak.*
- c) zenbaterainoko eragina duen administratuak aukeratutako hizkuntza ofiziala erabiltzeko eskubidean, eta langile elebiduna ez hartzeak administratuari eragingo lizkiokeen eragozpenak.*
- d) azkeneko Errolda edo Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikatik ateratako datuak, herri-administrazioaren lurralde-ezarpenaren esparruko biztanleen hizkuntz gaitasunari buruzkoak.*

2.- Hizkuntza Politikarako Sailordetzak txostena egingo du administrazioak aurkeztutako proposamenaren gainean.”

Eskoriatzako Udalaren irizpidea:

Bi lege horietan jasotakoa kontuan izanik, Eskoriatzako Udalak honako prozedura hau jarraituko du:

1. Bete beharreko lanpostua sortuta dagoenean, definituta dituen HE eta DD exijitu beharko dira hautaketa prozesuan bertan; hala ere, aldez aurretik Euskara Zerbitzuaren txostena eskatzea komeni da.
2. Plaza sortu gabe egon eta langile bat kontratatu behar denean, honako urratsak jarraituko dira:
 - Lanpostuaren funtzioak eta deskripzioa osatu.
 - Euskara zerbitzuaren txostena egin.
 - HPSri txostena eskatu.
 - HPSren eta euskara teknikariaren txostena Pertsonal batzordean aurkeztu.
 - Pertsonal batzordearen irizpena.
 - Dagokion organo erabakitzailearen erabakia.
 - Hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun-datari buruzko erabakia HPSri jakinarazi.
3. Halaber, bekadunak edo praktiketako ikasleak hartzeko hitzarmenik sinatu aurretik, Udalak txostena eskatuko dio Euskara zerbitzuari, udal langileek bete beharko lituzketen antzeko hizkuntza baldintzak beteko dituztela bermatzeko.



BIGARRENA: Derrigortasun datak zehazteko irizpidea

Lege oinarria:

Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeak 97. eta 98. ataletan xedatutakoari jarraituz, **86/1997 Dekretuak** honakoak jasotzen ditu, besteak beste, derrigortasun datari dagokionez:

7. atala

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitza betetzeko eta horretan jarduteko euskaraz beharrezko den gaitasun-maila kontuan hartuta erabakiko da lanpostu bakoitzari zein hizkuntz eskakizun dagokion. Era berean, lanposturen bati dagokionez hizkuntz eskakizuna derrigorrezkoa ez bada, euskararen ezagutza meritu gisa baloratu beharko da, bai lanpostuak betetzerakoan, bai langileak hartzerakoan.

8. atala

Derrigortasun-datatik aurrera hizkuntz eskakizunak egiaztatuta behar du. Kasu horretan betebehar hori derrigorrezkoa da dagokion lanpostuan sartzeko eta lanpostu hori bete ahal izateko.

26. atala

Derrigortasun-data igarota duten lanpostuak betetzerakoan, ezarritako hizkuntz eskakizuna gainditu duten pertsonak hartuko dira, bai herri-administrazioen zerbitzuan jarduteko langileak aukeratzeko prozesuetan, bai lanpostuak betetzekoetan.

28. atala

1.– Euskal herri-administrazioen zerbitzupeko langile izateko hautaketa-prozesuetan hizkuntz eskakizuna betetzea derrigorrezkoa denean, eskakizun hori egiaztatzea eska liteke, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, hautaketa-probetan bertan edo langile finko izan aurretik egin beharreko formakuntza-ikastaroan nahiz praktikaldian.

2.– Ikastaro eta praktikaldian parte hartu ahal izateko beharrezkoa izango da hautaketa-proben bitartez lanpostua betetzeko eskatzen den hizkuntz eskakizuna baino bi maila beheragokoa betetzen dela aurretiaz egiaztatzea. Salbuespen izango dira lehen eta bigarren hizkuntz eskaizunak. Kasu horietan euskara meritu modura baloratuko da hautaketa-probetan.

31. atala

1.– Bai langileak aukeratzeko, bai lanpostuak betetzeko, euskara ezagutzea meritu modura hartzerakoan egin beharreko balorazioa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 98.4. atalean ezarritakoaren arabera izango da. Hautaketa-prozesu osoan guztira eta gehienez jota lor daitekeen puntuazioa aintzakotzat hartuta, euskararen ezagutzari emango zaizkion portzentaia ondorengo hauexek izango dira, ez txikiagoak, ez handiagoak:

1. eta 2. H.E. - %5etik %10era.

3. eta 4. H.E. - %11tik %20ra.

2.– Dena den, administrazio bakoitzeko kidego edo eskala berean hutsik dauden lanpostuetarako baremazio-portzentaia beti bera izango da eta eskala horretan nagusitzen den hizkuntz eskakizunaren arabera ezarriko da.



Dekretu horrek berak, Euskal herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatuz joan dadin, erakunde bakoitzak bete beharreko gutxieneko helburuak ere ezartzen ditu:

17. atala

a) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %0tik %25era bitartekoa denean: Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio atal elebidunak ezarriko dira... /...

b) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean: Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio atal elebidunak jarriko dira gizarte izaerako ataletan eta ... /...

c) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %45etik %70era bitartekoa denean: Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan ... /...

Eskoriatzako Udalaren irizpidea:

Lanpostuen derrigortasun datak irizpide honen arabera erabakiko dira:

- Jendaurreko, gizarte izaerako eta izaera orokorreko lanpostuak betetzerakoan, irizpide orokor moduan, eskatuko da hautaketa probak bukatzen direnerako HE egiaztatuta izatea.
- Izaera bereziko lanpostuak (eskulangileak) betetzerakoan, berriz, lanpostuaren eginkizunak, harreman sarea eta udalaren momentuko egoeraren arabera erabakiko da.

Lanpostu zerrendakoak ez diren bestelako langileak hartzerakoan (Lanbide, bekadunak, praktiketakoak...), bete beharreko lanaren izaeraren arabera, ez da hartuko dagokion euskara maila frogatzen ez duen pertsonarik.



IV.- KONTRATAZIO IRIZPIDEAK



LEGE OINARRIA

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan xedatzen du euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza, hizkuntza ofiziala izango dela Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dutela bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Horrez gainera, ezartzen du autonomia-erkidego osorako erakundeek, autonomia-erkidegoaren aniztasun soziolinguistikoa kontuan hartuta, hizkuntza bion erabilera bermatuko dutela, eta bien ofizialtasuna arautuko, eta beren ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituztela.

Ilido berean, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 5. artikuluan aurreikusten du Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiek dutela hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz, eta herri-aginteeek eskubide horien erabilera ziurtatuko dutela, eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen.

Gainera, Konstituzio Auzitegiaren Osoko Bilkurak aspaldi emandako epai batek ezarri zuenez – 1986ko ekainaren 26ko 82/1986 Epaiak, hain zuzen ere–, euskara erabiltzeak berekin dakar beharrezko bitartekoak jartzea. Besteak beste, euskaraz hitz egiten dakiten langileak jarri behar dira bai Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan eta bai estatuko administrazio periferikoan, Konstituzio Auzitegiaren abuztuaren 5eko 76/1983 Epaian adierazitako eran; autonomia-erkidego honetako herritarrei horrela bermatuko baitzaie hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea.

Geroago, haxe aurreikusi zuen Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 97. artikuluan: "Euskera eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan".

Ilido berberari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 89/1997 Dekretuak ezarri zuen euskara eta gaztelania, biak, direla hizkuntza ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten administrazio publikoetan, eta herritarrek eskubidea dutela administrazio publikoekin harremanak euskaraz izateko.

Horrez gain, dekretuak ezarri zuen euskara zerbitzu- zein lan-hizkuntza modura normaltasunez erabiltzeko hartu beharreko neurriak hartuko dituztela herri-aginteeek, eta beharrezko neurriak hartuko dituztela haien zerbitzura dauden langileek hizkuntza gaitasun egokia lor dezaten.



Zehazki, dekretuaren 18. artikulua ezarri zuen euskararen erabilera normalizatzeko planetan agertuko direla erakunde bakoitzak, 17. artikuluan ezarritako normalizaziohelburuak betetzeko, erabiliko duen hizkuntza politika eta haren nondik norako eta jarraibide nagusiak, eta gutxienez artikuluko horretan adierazitako zehaztapenak jaso beharko direla plan horietan.

Horri dagokionez, bereziki d) idatz-zatia nabarmendu beharra dago, hauxe aurreikusten baitu kontratazio-arloan:

“d) kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezen”.

Azkenik, Euskadiko Toki Erakundearen 2/2016 Legearen 7. artikuluko 8.puntuak honako hau arautzen du:

“Herritarren hizkuntza-eskubideei eta euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeari dagokienez trabarik gertatu ez dadin indarreko legeriak onartzen dituen zehar-kudeaeta moduetako baten bitartez zerbitzua emateagatik, toki-erakundeek egiten dituzten kontratueta kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, hirugarren batzuek egikaritzen dituzten zerbitzu publikoetan helburu hauek bermatze aldera:

- a) Kontratuaren xedeak bete dezala bere izaeragatik eta zerbitzuaren titularra den toki-erakundearen ezaugarriengatik aplikagarria zaion hizkuntza-legeria.*
- b) Herritarrak artatuak izan daitezela berek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.*
- c) Zerbitzua eman dadila, hizkuntza-baldintzei dagokienez, zerbitzuaren herri-administrazio titularrari exijitu ahal zaizkion baldintza beretan.”*



ESKORIATZAKO UDALAREN ADMINISTRAZIO KONTRATUETAN EUSKARAREN ERABILERA ETA EZAGUTZA SARTZEKO OINARRI OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan daude jasota Erkidegoko herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharrak.

Gurea gizartea elebiduna da, eta hori kontuan izanik antolamendu juridikoak euskara eta gaztelania jotzen ditu ofizialtzat, biei balio eta duintasun berbera emanda.

Hori kontuan izanda, administrazioaren jarduera ezin da ulertu hizkuntzari buruz onartu dugun araubide juridikotik kanpo. Hizkuntza bien **ofizialtasunak berme bat izan behar du** herritarrek askatasunez aukeratutako hizkuntza erabili ahal izan dezaten botere publikoen eta horien agenteen aurrean.

Izan ere, **elebitasuna ez da hautazkoa herri-administrazioarentzat**; aitzitik, **legezko eskakizuna da**, eta administrazioaren jarduera bat ere ez dago salbuetsita, ezta kontratazioa ere.

Beraz, indarrean dagoen antolamendu juridikoari atxikitzeko eta gizartearen eta administrazioaren errealitatearekin koherente izateko, nahitaezkoa da administrazio jardueretan hizkuntza ofizial bietan normaltasunez funtzionatzea, **baita administrazioaren kontratazio publikoaren alorrean ere**, bai prestazio-hartzailea administrazio elebiduna denean (gure kasuan bezala), bai administrazioak enpresa pribatu baten esku jartzen duenean gurea bezalako gizarte elebidun bati eman beharreko zerbitzuak kudeatu eta emateko ardura.

Testuinguru horretan, Eskoriatzako Udalak administrazio kontratuetakoko pleguetan jaso beharreko irizpideak zehaztu ditu, udalak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza-baldintzak bermatzeko helburuarekin. Horrela, oro har, hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea betearaziko da, baina, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek (zerbitzuaren jardueraren gaia; xede taldea; udalaren hizkuntza-araudia) hala eskatzen badute, hainbat kontratu euskaraz gauzatzeko neurriak ezarriko dira.

Hizkuntza-baldintzak kontratu bakoitzaren ezaugarrien arabera moldatu beharko dira, baina kontratazio modu eta mota guztietan jasoko dira: kontratu irekietan, prozedura negoziatuetan eta kontratu txikietan, bai obra kontratuetan, herri-lanen emakidetan, zerbitzu-kontratuetan, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta hornidura kontratuetan. Halaber, baldintza agiri guztietan jasoko dira: baldintza agiri administratiboetan eta teknikoetan.

Horrela bada, Eskoriatzako Udalaren kontratazio administratiboetako pleguetan, ondorengo taulan agertzen diren hizkuntza baldintzak txertatuko dira, betiere kontratu bakoitzaren ezaugarrien arabera:

ADMINISTRAZIO-KONTRATUETAN TXERTATZEKO HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

		Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak eta administrazio kontratu bereziak	Hornidura kontratuak	
BALDINTZA	PLEGU	ADMINISTRATIBOAK					Htza araudia eta ondorioak
		Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea: - Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikulua. - Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea eta hori garatzen duten arauak, besteak beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengo agertzen da: "18 d) Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntz baldintzak berma daitezten." 2/2016 Legeak, berriz, bere 7.8 artikuluan, eskumena aitortzen die udalei zehar-kudeaketa moduan ematen diren zerbitzuen kontratuetan hizkuntza klausulak sartzeko helburu honekin: udalari exijitu ahal zaizkion hizkuntza baldintza beretan ematea zerbitzua. Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen ondorio berdinak izango ditu: zigor sistema aplikatzea edo kontratua suntsiaraztea.					
		Horrenbestez, kontratu honek nahitaez bete behar duenez hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, zerbitzu hizkuntzak euskara eta gaztelania izango dira. - Kasu guztietan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. ... (gehitu azpiko puntuetatik dagokiona)					
		(Obra kontratuetan ez da hizkuntza gaitasunari buruzko eskakizunik txertatuko)	Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez (zehaztasunak, baldintza teknikoetan).				(Hornidura kontratuetan ez da hizkuntza gaitasunari buruzko eskakizunik txertatuko)
		Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldez aurretik adostuta.	Kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne.	Esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte errotulazioan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketetan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere.	Enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabilera eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuzko eta soinuuzko interfazeak barne.		
Enpresa esleipendunak udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatu du, kontratuaren xede diren jarduera guztietan; eta beraz, enpresak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak udalaren lan hizkuntzaren arabera izango dira.						Admin harre.	
Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena: Zerbitzuaren kontratazioa sustatu duen udal arloak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.						Jarraipena	

		Obra kontratuak	Herri-lanen emakidak	Zerbitzu kontratuak	Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak eta administrazio kontratu bereziak	Hornidura kontratuak
BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK	HIZKUNTZA GAITASUNA		Administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren xx gaitasun maila egiaztatu beharko du nork/nortzuk... Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonen badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute. Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira: 1. Zerbitzua eman behar duten pertsonen eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo, 2. Administrazioak erabakitako proba egitea (proba horretan lortutako agiriak ez du inolako baliorik izango esleipen honetatik kanpo). Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.			
	HIZK. PAISAIA	Errotuluak, oharrak, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez, betiere administrazioarekin aldeztu aurretik adostuta.				
	ERABILERA HERRITARREKIN		Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera eta erantzuna administrazioari eskatzen zaizkion hizkuntza baldintza berdinetan egingo dira. Administrazioak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da, eta gero, solaskideak hautatzen duen hizkuntzan jarraituko da. Modu berean, era guztietako jakinarazpen eta komunikazio idatziak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, fakturak eta bestelako agiriak) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez. Herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea.			
	ERABILERA ADMINISTRA-ZIOAREKIN	Enpresak udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsulta...) udalaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da, euskaraz, eta onartzen den kasuetan, ele bietan.				

